# 2017ko udaberriaren ospakizuna Sagardoetxean

maiatza 1, 2017 Ekitaldiak, Museoak, Sagastia 0 comments



**Udaberrian sartzearekin batera, Sagardoaren Lurraldeko sagarrondoak loratzen hasi dira eta sasoi hau ospatzeko, datozen hilabeetarako hainbat ekitaldi antolatu dira Sagardoetxean.**

Antolatutako ekimenen artean, azpimarratzekoak dira **udaberriko Sagardoetxeako bisitak**. Garai honetan polinizazio prozesuaren inguruko azalpenak ematen dira museoan, sagardoaren ekoizpenaren alderdi ezezagun bezain garrantsitsua dena, eta bisitariek sagarrondoek eskaintzen duten paisaiaz gozatzeko aukera izaten dute, naturarekin kontaktuan.

Bisita gidatu hauetaz gain, **maiatzaren 6an** sagastien loraldia ospatzeko udaberri festa ospatuko da Sagardoetxean honako **jarduerekin**:

**12:00-13:30: "Loreekin egindako bitxigintza tailerra" loreekin eskumuturrekoak egiteko**
Sagastien loraldia ospatzeko, loreekin apaingarriak egiteko familientzako tailerra ospatuko da Sagardoetxean Idoia Lizeaga bitxigilearen eskutik. Jarduera doakoa izango da, baina aurrez izena ematea beharrezkoa da. Izen-emateak: info@sagardoetxea.com / 943550575

**17:00: "Inaxiren istorioak" ikuskizuna sagastian**
Musika, dantza eta antzerkia uztartuko dituen "Inaxiren istorioak" ikuskizuna ospatuko da Sagardoetxeako sagastian. Ikuskizun honetan Astigarragako hainbat talde

Privacidad - Condiciones

kulturaletako haurrek parte hartuko dute: Norberto Almandoz Musika Eskola, Astigarragako Antzerki Eskola eta Astigar E.O.E.ko dantzariak.
* Oharra: eguraldi txarra eginez gero, ikuskizuna ikastolako patioan ospatuko da.

## Bilatzailea

Bilatu

## Kategoriak

Agenda

Argitalpenak

Azokak

Berriak

Ekitaldiak

Erakusketak

Esperientziak

Formazioa

Gastronomia

Historia

Kultura

Lehiaketak

Museoak

Sagardoa

Sagardotegiak

Sagarra

Sagastia

Turismoa

## Artxiboak

Hautatu hilabetea ▾

Privacidad - Condiciones

## ZATOZ ETA GOZATU

SAGARDOAREN LURRALDEA
el territorio de la sidra

Kale Nagusia, 48

20115

Astigarraga

Gipuzkoa

## LAGUNTZA BEHAR DUZU?

943 550 575

JARRAI IEZAGUZU...



EXPLORE SANSEBASTIAN REGION

EUSKADI BASQUE COUNTRY

EUSKADI gastronomika

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

Privacidad - Condiciones

© 2019 Sagardun Partzuergo publiko-pribatua
LEGEZKO INFORMAZIOA



Privacidad - Condiciones